

## **20 urte egun batean, borrokara "xeremiers"!**

### **#TRACK1**

*Su txinparten hotsa entzuten da sukaldean. "Porqueret" batek (Mallorca eta Menorkako flautin edo "fabiola" tradizionalaren haurrentzako bertsioak) "Maestro Guimet" du doinu urrunean. Gertutatzen doa pixkanaka, albora iritsi eta isildu arte.*

Margalida - Amona, zertan zabilta?

Amona - Karakolak gabitzen ari naiz, bihar osaba etorriko da eguna gurekin pasatzera eta karakolak prestatzeko eskatu dit, hori bazkaldu nahi omen du.

Margalida - Karakolak!? Baina amona, bihar ez da "Firó" eguna! (*Sóller-en ospatzen den egun tradizionala*)

Amona - Ez, Margalida, baina badakizu osaba ez dela Sóller-en bizi, eta noizean behin bakarrik etortzen dela, ahal duenean. Etortzen denean karakolak jan nahi baditu ez da ezer gertatzen, "Firó" eguna ez denean ere jan daitezke. Zuri ez al zaizu karakolak jatea gustatzen?

Margalida - Noski! Izugarri gustatzen zaizkit karakolak.

Amona - Eta zein da arazoa orduan?

Margalida - Karakolak ikusita "Firó" egunean Sóller osoa biltzen duen usaina datorkit burura. Eta ez da bidezkoa, oraindik asko falta da nekazariz jantzi eta aitarekin batera mairuen aurka borra egitera joateko!

Amona - (*Barrez*) Ai Margalideta! Ezin Sóller-zale handiagoa izan!

Margalida – Amona...

Amona – Esan.

Margalida - Handitzen naizenean "fabiola" hartu eta "xeremiers" guztiekin batera atera nahi dut nik Sóllerren. Zuk egiten duzun moduan, beti aurre aurrean, nekazariak borrokaz borroka gidatuz.

Amona - Erne! "Xeremiers"-entzat Firó eguna hori baina gehiago da eta. Goizean goiz xeremien soinuaz hasten da festa, eta eguna pasa ondoren, dena bukatu denean, xeremiek jotzen jarraitzen dute gauerdia atzean utzita. Egun osoa ematen dute jotzen!

Margalida - Ezin liteke!

Amona - Nola ezetz!?

Margalida - Goizean ez dago borrokarik. "Firóa" bazkalostean hasten da eta plazan bukatzen da denok batera Balanguera abesten dugunean.

Amona - Ene, Margalida, asko falta zaizu zuri Firóaren inguruan ikasteko. Zatoz, xeremier baten ikuspuntutik Firó eguna nolakoa den erakutsiko dizut. Eskerrak Sóllergo

xeremiersek 20. urteurrena ospatzeko CD bat osatu genuen. Bertan Firo eguneko kantuek bildu ditugu.

*CD batzuen arteko talka entzuten da, Amona zerbaiten bila ari da.*

Amona - Ara! Begira! Hemen dago. Goazen entzutera, eta aditu arretaz.

Margalida - Ados amona.

Amona - Lehen kantu honen izena "Mateixa de Can Tamany" da. Kantu benetan zaharra da, Sollerren idatzia. Firó bakoitzean, goizean goiz zeremonia irmoa ospatzen da Monumentuan. Pertsonaia historiko guztiak eta han egon nahi duten nekazariak bertaratzen dira. Denok isilik entzuten dute "fabioler"-ak kantua jotzen duen bitartean, eta gogoz txalotzen dute bukatzerakoan.

**#TRACK2** "MATEIXA DE CAN TAMANY" (*"Can Tamany" Jota*)

**#TRACK3**

Amona - Gustatu zaizu?

Margalida - Izugarri! Egunen batean ni izango naiz "fabioler", eta horra erdira aterako naiz mundu guztiaren aurrean doinu hori jotzera.

Amona - Noski baietz, Margalida. Baina momentuz... jakin nahi al duzu nola jarraitzen duen Firó egunak xeremier batentzat?

Margalida - Bai, Amona! Mesedez!

Amona – Monumentuan ospatutako ekitaldiaren ondotik "Can Tamany" aldera doaz denak, meza tradizionala entzutera. Eta nola ez, pertsonaia historikoak ere joaten dira horra, xeremiersen atzetik. Ez da ohitura, baina, xeremiersak mezan sartzea.

Margalida - A, ez?

Amona - Ez, normalean xeremiersak goiko "Can Sec" etxera joateko gonbita jasotzen dugu, eta "Can Tamany"-ra iritsi ondoren bertara joaten gara hamaiketakoja jatera. Han asetu arte janten eta edaten dugu.

Margalida - Eta xeremiersek bakarrik jasotzen al dute gonbidapen hori?

Amona - Noski ezetz, Margalida. Hura beti egoten da jendez gainezka, jabeek gonbidatuak izaten dira denak, ez pentsa. Eta gehienek dantzari aritzeko gogoia edukitzen dute gainera. Horregatik bukatzen dugu beti jota eta bolero batzuk jotzen. Horietako bat adibidez "Valentes Dones" deitzen da, bolero erabat "sollerico"-a.

**#TRACK4** "SES VALENTES DONES BOLEROA" (*Emakume Ausarten boleroa*)

**#TRACK5**

Margalida - Jota bat entzun nahi dut orain.

Amona - Horrela eskatzen al dira gauzak Margalida?

Margalida - Jota eta boleroak jotzen dituzuela esan duzu. Bolero bat entzun dugu eta jota bat entzun nahi dut orain.

Amona - Ados, ea zer aurkitzen dugun xeremiersen CD honetan.

Aditu, jota hau kargu-hartze egunean pentsatuz idatzi zen. "Valentes Dones" berriak izendatzeko Firó egunaren aurretiko ostegunean ospatzen da kargu hartzea, eta egun horretan ematen zaio festari hasiera. Dakizun bezala, ospakizuna "Barrut"-a sartzeko hasten da. Honek Can Tamanyko makila eramaten dut xeremier bikote batekin batera.

Margalida – Bai.

Amona - Pieza honek xeremiersekin batera joaten den pertsonaiaren izena du; "Jota des Barrut".

**#TRACK6** "JOTA DES BARRUT" (*Makila daraman pertsonaiaren jota*)

**#TRACK7**

Amona - Xeremiersek oso ongi pasatzen dugu han goian, Margalida, baina eguna aurrera doa eta jendeak dure "xeremíes, fabiols eta tamborinos" entzun entzun eta gozatu nahi dute.

Margalida - Noski, borrokara joan behar dugu!

Amona - Itxaron. Horra heldu baina lehen badira beste gauza batzuk. Lehenik "Can Tamany"-ra itzuli behar dugu. Meza bukatutakoan hara itzultzen baitira. Bertan "Mateixa de Can Tamany" jotzen dugu berriz, eta "Sor Tomaseta" gero.

Margalida - Sor Tomaseta! Hori badakit!

*Margalida "Sor Tomaseta" abesten hasi eta amona batzen zaio. Lehen estrofa abesten dute.*

Amona - Oso ongi Margalida! Oso ongi abestu duzu!

Margalida - Eskerrik asko, amona. Eskolan ikasi genuen.

Amona - Primeran. Zertan ari nintzen? A, bai! "Sor Tomaseta" entzun ondoren beste etxe bateko gonbidapena jasotzen dugu normalean. "Can Tamany"-tik gertu dago, eta "Can Sec" du izena.

Margalida - Berriz jotzen duzue han?

Amona - Bai horixe. Bertan ere jende asko egoten da, nekazariak izaten dira gehienak, hemen biltzen baitira "Firó" goizean. Nekazariak, gainera, dantzan aritzeko gogoia edukitzen dute jai egunetan.

Margalida - Eta zer jotzen duzue han?

Amona - Asko jotzen ditugu. "Jota de ses Pageses" deitzen den pieza bat entzutea gustatuko litzaizuke agian. Sollergo xeremiersek konposatu genuen nekazarien omenez.

### **#TRACK8** "JOTA DE SES PAGESES" (*Nekazarien jota*)

### **#TRACK9**

Amona - Pentsatzen hasita "Can Tamany"-ko "Can Sec" etxean jotzen dugun beste pieza bat gogoratu dut. Ziur nago gustatuko zaizula.

Margalida - Zein da, amona?

Amona - "Firó" egunean nahiko aldiz errepikatzen dugun pieza bat da, baina guretzat, xeremiersentzat garrantzi berezia du momentu horretan.

Margalida - Baina zein da? Nola deitzen da?

Amona - Kantak "No en volem cap" du izena, seguraski ezagutuko duzu.

Margalida - Noski ezagutzen dudala, baina zergatik da xeremiersentzat momentu honetan hain garrantzitsua?

Amona - Urtero guretzat magiaz beteriko momentua izaten delako. Sukaldera sartzen gara. Han jabeaz gain nekazari pila egoten da, hainbeste izan ohi dira non ahalegin handia egin behar baitugun sartzeko. "Fabiolers"-ek ez dugu "tamborinoa" jotzeko lekurik izaten, eta xeremiersek berriz postura arraroetan jo behar izaten dugu instrumentuak sartu ahal izateko. Eta sardina lata ematen duen sukalde hortan denok batera abestu eta txalotzen dugu.

### **#TRACK10** "NO EN VOLEM CAP" (*Ez dugu inor nahi*)

### **#TRACK11**

Margalida - Amona, galdera bat.

Amona – Esan.

Margalida - "Firó" eguneko goiza beti izan da kontatzen ari didazun modukoa?

Amona - Ados, txiki...Ez. Ez da beti horrelakoa izan. Jai eguna aldatuz doa, eguna ospatzen duten jedearen ohiturak aldatuz doazen bezalaxe. Baina xeremiersak beti gaude hor, aldeketan horiekin batera moldatzeko prest. Hala ere, hau izan da urte askoz xeremiersen ohitura "Firó" egunean. Inoiz aldatzen ez dena urteko xeremier bakoitzak Sollergo gainontzeko familiek bezalaxe beren etxean bazkaltzen dutela da, familiarekin batera. Hau da egunean zehar banantzen diren momentu bakarra. Eta kanpaiak jotzen entzun bezain pronto "Estiradors" plazan elkartzeko gara Capitán Angelats-en hareng entzuteko. Entzun ondoren "El Bon Jesus" joaz sartzen gara plazara.

Margalida - Uep! Abesti hau "fobiol"-az jotzen dakit!

*"Fabiol" batekin jotako "El Bon Jesus"-en zati bat entzuten da.*

Amona - Oso ongi Margalida. Plazara sartzen garenean gendate guztiaren tartean pieza hau jotzen dugu.

Margalida - Itxaron, amona.

Amona - Bai, Margalida?

Margalida - Plazan nekazaria emakumeak badaude, eta xeremiersak beti nekazari gizonekin batera badoaz, nola liteke xeremier artean emakumeak egotea?

Amona - Ulertzen dut taldeen gaia nahasgarria izan daitekeela. Mairuak mairuekin, nekazari emakumeak nekazari emakumeekin, eta nekazari gizonezkoak gizonezkoekin. Honek arrazoi historikoak ditu. Xeremiers artean, baina, emakumeak ere badaude, eta nekazariak berezitasun hau ulertzen eta errespetatzen dute.

Margalida - A!

Amona - Zuri ongi irudituko litzaizuke norbaitek xeremierak "Firó" egunean emakume izateagatik etxean gelditu behar dugula esango baligu?

Margalida - A, ez ez! Ez legoke batere ongi!

Amona - Horixe ba. Beno, eta xeremiersak plazan sartu ondoren... gogoratzen duzu zer gertatzen den?

Margalida - Pertsonaia historikoak udaletxeko atriara igotzen dira, eta bertatik denek hitz egiten dute. Horren ondotik gehien gustatzen zaidan momentua dator.

Amona - Zer momentu, Margalida?

Margalida - Bidelapurak eta nahaspilariak datozen momentua.

Amona - A, bai? Eta zergatik da ba hori zure momenturik gustukoena?

Margalida - Trabuco eta eskopetekin zerura tiroak joaz sartzen direlako! *(Margalidak tiro soinuak egiten ditu, amonak far)*

Amona - Ai txiki, zu bai itzela!

Margalida - Haunditzerakoan bidelapur izan nahi dut!

Amona - Bai noski, denetatik izan nahi duzu zuk!

Margalida - Egia da, amona!

Amona - Xeremierek egindako pieza hau asko gustatuko zaizu orduan.

**#TRACK12** “JOTA DES BANDOLERS I TRABUCAIRES” (Bidelapur eta nahaspilariei eskainitako jota)

**#TRACK13**

Amona - Honen ondotik plazatik atera eta portu aldera joaten gara mairuen aurka borroka egitera. Uste dut momentu hontatik aurrera gertatzen dena argiago duzula.

Margalida - Baina egunean zehar jotzen dituzuen kantu guztien berri eduki nahi dut amona!

Amona - Esan dizut, Margalida, asko dira, pila bat! Zenbat arte dakizu zenbatzen?

Margalida - Ehun baina gehiagora arte!

Amona - Ba horiek dira “Firó” egunean jotzen ditugun piezak, ehun baina gehiago!

Margalida - Eta ez al dago horietako bat bera ere xeremiersen CD-an?

Abuela - Noski baietz!

Margalida - Eta ezin al dugu entzuten jarraitu?

Amona - Noski. Begira, pieza hau plazako buruhandiak dantzan jartzeko jotzen dugu larunbatean. “Ball de Caparrots” deitzen da eta hau eta xeremiersek idatzi zuten.

**#TRACK14** “BALL DE CAPARROTS” ( *Buruhandien dantza*)

**#TRACK15**

Margalida - Zeinen itzelak diren buruhandiak!

Amona - Izugarriak!

Margalida - Dantzatzerakoan saltoka ibiltzen dira, borobilean jartzen dira...

Amona - Justu Margalida. Hori da!

Margalida - Baina amona, gauza batetaz konturatu naiz.

Amona - Zertaz?

Margalida - Xeremiersek kantu tradizionalak edo zuek idatzitako kantuak bakarrik jotzen dituzue.

Amona - Hori ez da egia, Margalida! Horietaz gain xeremiersek bidaietan ikasitako kantuak ere jotzen ditugu.

Margalida - Bidaietan? Zein bidai?

Amona - Sollergo xeremiersak kultura trazionala ospatzen duten jaialdi batetara baina gehiagotara gonbidatu gaituzte europar zehar. Bertan Sóller eta Mallorca ordezkatu ditugu dure instrumentuekin.

Margalida - Eta non izan dira jaialdi horiek?

Amona - Espainian Katalunia, Asturias eta Galizian egon gara, eta Espainiatik kanpo Alemanian, Italian, Frantzia eta baita Eskozia eta Turkian ere.

Margalida - Eta "Firó" egunean kantu horietako baten bat jotze al duzue?

Amona - Bai, izan ere jarraian entzungo duzun kantua "Firó" aurreko egunean jotzeko ohitura dugu, egun handirako prestatzen garen bitartean, bidelapurrek ron errea prestatzen duten bitartean. Balingenen ikasi genuen kantu hau, Alemanian, eta galiziar batzuek irakatsi ziguten. Talde harekin erlazio ona dugu egun ere. Kantua "Pasodoble Argentino" da, ziur ezagutzen duzula, xeremiersek koreografia dibertigarri bat egiten dugu jozerakoan.

**#TRACK16 "PASDOBLE ARGENTINO"**

**#TRACK17**

Amona - Orain ongi iruditzen bazaizu jaialdi batean ikasitako pieza bat entzungo dugu. Oker ez banabil behin baina gehiagotan joan gara jaialdi hartara.

Margalida - Non ospatzen da jaialdi hori?

Amona - Glasgoven.

Margalida - Glasgoven?

Amona - Bai, ipar Europar dagoen hiria da, Eskozian dago zehazki. Bertan ospatzen dira gaita ekitaldirik handienak, ez da txantxa.

Margalida - Benetan?

Amona - Bene-benetan Margalida. "Piping Live" deitzen da eta mundu osoko gaita taldeak bertaratzen dira kontzertuak ematera eta kalejirak jotzera. Badira lehiaketetan parte hartzeko bakarrik joaten direnak ere. Maisu-eskolak, hitzaldiak eta erakusketak ere antolatzen dira.

Margalida - Eta zer egin zenutan xeremiersek joan zineten horietan?

Amona - Gu kontzertuak emateko eta kalejirak jotzeko gonbidatu izan gaituzte. Beno, lehen aldiz gonbidatu gintuztenean berriz gonbidatzeko bezain ongi egin genuen, behintzat. (Farrez) Horrelako tokietara itzultzearen alderik onena denboran zehar mantentzen diren lagunak egitea izaten da beti.

Margalida - Eta zein kantu ikasi zenutan Eskozian?

Amona - Ezaguna egingo zaizu akaso, telebistan eta pelikuletan entzungo zenuen noizbait. "Scotland the Brave" du izena.

### **#TRACK18** "SCOTLAND THE BRAVE"

### **#TRACK19**

Margalida - Amona, egin dituzuen bidaiei eta munduan zehar ikasi dituzuen kantei buruz gehiago ikasi nahi dut.

Amona - Entzun arretaz. Hurrengo kantuak istorio berezia du xeremiersentzat. Gogoratzen duzu Sollergo laranjak saldu ahal izateko itsasontziz Sollergo Portutik Frantziara eramaten zituztela, ezta?

Margalida - Noski, amona! Denbora luzean zehar sollergo jendea Frantziako portuetara joaten zen laranjak saltzera. Eta sollergo familia asko bertan gelditu ziren gero bizitzera, gure familian gertatu zen moduan.

Amona - Bai horixe, Margalida. Zure birraitona, hau da, nire aitona, Frantzian jaio zen. Baina denbora bat pasata Sóllerrera itzuli zen familia bixitatzerara, eta hona etorri zen bizitzera. Nire osaba izeba eta lehengusuak berriz han galditu ziren, nahiz eta noizean behin bixitan etorri.

Margalida - A, bai? Nik ez ditut ezagutzen!

Amona - Geroz eta gutxiagotan etortzen dira, eta azkenekoz etorri zirenean zu oso txikia zinen gogoratzeko. Baina Sóllergo Portua eta Frantzia lotzen dituen istoriora itzuliz, beste gauza at kontatuko dizut. Duela urte batzuk Sóllergo xeremiersek europako eskualde desberdinak batzen zituen proiektu batetan hartu genuen parte. Anfiritioia Okzitania zen, Frantzia hegoalde osoa hartzen duen eskualdea. Bertan daude Sollergo laranjak saltzera eramaten zituzten portuak. Ulertu duzu?

Margalida - Bai, ulertu dut.

Amona - Proiektu horretan zehar Séteko portuan pasa genituen egun batzuk, marineltadizioen inguruan antolatutako jaialdi batean. Mundu osotik etorritako itsasontzi historikoak zeuden han. Sollergo jendeak portu hartan egiten zituzten negozioak. Gu joan ginenean portuak laranja usaina zueneko oroimena zuen jendea ezagutu genuen, alkatea haien artean. Sóller laranja mota bat zela uste zuen jendea ere topatu genuen, eta txundituta gelditu ziren Sóller herri bat zela eta bertako laranja mota "canoneta" deitzen dela esan genienean.

Margalida - Benetan?

Amona - Bai, Margalida. Han oraindik ere gogoan dute Sóller eta bertako laranjek uzten zuten usaina. Okzitaniako taldeko kide heldu batek bere aitak portuan lan egiten zuela eta bertan itsasontziak husten lan egiten zuela kontatu zigun. Itsasontzi horietako batzuk sollergo laranjak zekartzaten. Berak ere txikia zeneko oroitzenak ditu han, portuan lagunekin jolasten zuenekoak, eta laranjak zehazki non deskargatzen ziren gogoratzen zuen.



Margalida - Ara! Hori oso zirraragarria da, ezta? Historiarekin topo egingo bazenute bezala!

Amona - Bai, oso hunkigarria da. Eta oraindik ez dizut dena kontatu! Eman behar genuen kontzertuetako bar laranja deskargatzen ziren portuan zegoen aurreikusia. Sinestezina ezta? Justu gure arbasoek lan egiten zuten tokian. Hortxe geunden xeremier guztiak Sollergo eta Mallorkako pieza tradizionalak jotzen. Bat baina gehiago hunkitu zen...

Margalida - Esan mesedez portu hartan kanturen bat ikasi zenutela.

Amona - Noski ikasi genuela. Talde okzitanoko gure lagunek Séteko vals tradizional bat irakati ziguten. "Valse Louise" deitzen da, eta xeremiersek 20. urteurrenerako grabatu genuenean beraiek tradizionalki erabiltzen duten instrument batekin batega grabatu genuen; Oboearekin.

### **#TRACK20 "VALSE LOUISE"**

#### **#TRACK21**

Margalida - Zein da hurrengo pieza?

Amona - Ez, Margalida, xeremiersek ez dugu orden jakin bat jarraitzen "Firó" egunean. Beti jotzen ditugun pieza batzuk daude, eta garrantzitsuenak beti beti entzuten dira sollergo jai egunean, baina ez ditugu kantuak orden berezi bati jarraituz jotzen.

Margalida - Ez, amona! Xeremiersen CD-ari buruz ari naiz!

Amona - A, barkatu! Ez zaitut ongi ulertu. Ea ba...Ikus dezagun. Begira, orain entzungo dugun kantu hau "Firó" egunean denok itsaroten dugu gogoz, eguneko momenturik garrantzitsuenetako batean jotzen dugu.

Margalida - Zein momentutan?

Amona - Ea asmatzen duzun. Portuko borrokatik herrira itzuli gara. Barona Zubiko hirugarren borroka ere pasa dugu. Nekazariak aurretik mairuek okupatu duten plazan sartzen gara borrokara. Gure kapitain Angelats-ek Mairu Erregea gainditu du udaletxeko atrioan egindako borrokan, eta horren ondotik balkoira igo da garaipena aldarrikatzera eta sollergo jendearekin batera hau kantatzera...

Margalida - Balanguera!

Amona - Bai horixe! Gure irlako doinua da, Mallorkako ereserkia! Sollergo plazan denak kantari!

### **#TRACK22 "LA BALANGUERA" (Irulea)**

#### **#TRACK23**

Margalida - Zer nolako jai amaiera. Balanguera entzun eta oilo ipurdia jarri zait.

Amona - Nola jai amaiera?

Margalida - Bai, ezta? Balangera bukatzen denean bukatzen da "Firó" eguna ezta? Ez dago beste ezer.

Amona - Nola ez dagoela beste ezer? Ez Margalida, festa ez da orduan bukatzen, naiz eta gauez izan, ez da festa bukatu.

Margalida - A ez?

Amona - Saiatu gogoratzen, aurreko urtean nirekin etorri zinen eta. Ez al duzu gogoratzen? Eliza parean egon ginen itzaroten. Pertsonaia historikoekin eta nekazariekin batera Garaipenaren Birjinaren irudia itzuli genuen hospizio kaperara.

Margalida - Egia da! Aurreko larunbatean, azoka egunean, Birjina elizara eraman genuen eskaintza bat egiteko, horregatik itzuli genuen gero bere lekura. Ez nintzen gogoratzen!

Amona - Ai Margalida! Zer nolako burua! Gogoratzen duzu nola kaperara itzultakoan denak batera kantu bat abesten dugun?

Margalida - Ez amona. Sentitzen dut.

Amona - Ez da ezer gertatzen. Begira, han oso antzinako abesti bat abesten dugu. Kantu hau kantu gregorianoa da, eta mendeak ditu.

Margalida - Mendeak? Eskolan esan digute mende batek ehun urte dituela.

Amona - Pentsa zenbat urte dituen kantu horrek.

Margalida - Mordoa!

Amona – Bai.

Margalida – Baina amona, nola du izena?

Amona - "Salve Regina" deitzen da eta xeremiersek bertasio bat egin zuten.

### **#TRACK24 "SALVE REGINA"**

### **#TRACK25**

Amona - Eta orain bai, kaperatik irteterakoan jaieguna amaitutzat eman genezake.

Margalida - Gogoan dut xeremiersek beste zerbaitekin jotzen zutela. Eta jendeak Hospizio eta Ilargi Kaleetan behera jarraitzen zituztela.

Amona - Egia da, Margalida. Badakizu zein jotzen dugun hospiziotik ateratakoan?

Margalida - Zein?

Amona - Egun osoan zehar behin eta berriz errepikatzen dugun kantu bat: "Som Sollerie".

Margalida - Egia da!

Amona - Orain entzun nahi duzu?

Margalida - Bai, mesedez amona!

Amona - Tira ba!

**#TRACK26** "SOM SOLLERIC" (*Sóllergoa naiz*)

**#TRACK27**

Amona - "Firó" eguna bukatutakoan festan jarraitu nahi duen jendea egoten da, eta festan non jarraitu bila ibiltzen dira.

Margalida - Eta nora joaten dira?

Amona - Plazan gelditzen dira asko. Taberna asko irekita gelditzen dira, eta horietan nekazari zein mairu elkartzen dira.

Margalida - Eta xeremiersak ere joaten al dira?

Amona - Noski baietz. Esan dizut xeremiersak hasiera hasieratik festa bukatu arte gelditzen direla. Bukatutakoan "Es Pont" tabernara joateko ohitura dugu guk. Han beti tratatu izan gaituzte oso ongi, eta ahora eramateko zerbait edukitzen dute prest beti. Eguna gora eta behera pasa ondoren eskertzekoa da.

Margalida - Eta zer jotzen duzue han?

Amona - Pieza asko jotzen ditugu, gauerdia atzean utzi arte. Baina ohitura galdu gabe beti errepikatzen den kantu bat dago. Tabernaren izenaren (Zub Taberna) eta kantuaren izenaren (Pariko Zubiak) arteko antzekotasunagatik dibertigarria dela iruditzen zaigu. Ez du logika handirik baina horrelakoak gara xeremiersak: barnetik ateratzen zaizkigun gauzak egiten ditugu, gutoz beti ere.

**#TRACK28** "ELS PONTS DE PARÍS" (*Parisko Zubiak*)

**#TRACK29**

Amona - Tira, Margalida! Hartu "fabiol"-a eta hasi ikasten, handiagoa zarenean amona eta xeremiersekin batera etortzeko aukera izango duzu, eta "Firó" eguna gurekin batera pasako duzu.

Margalida - Bai, amona! Asko ikasiko dut eta zuekin jokon dut!

(*"Porqueret"-arekin "Per tocar caminant" joaz aldentzen da*)

Amona - (*bere buruarekin hizketan*) Neskatila hau... zer nolako gogoia duen "Firó" egunen xeremiersekin batera ateratzeko... Nik berak baina gogo gehiago dudala jakingo balu...

## **#BONUS TRACK**

Kapitaina:

Oso ongi, xeremiers, oso ongi.  
Primeran egin duzue lana.  
Mairuen aurka  
borrokan eta irabazten jakin duzue.

Denak zoriontzen zaituztet,  
denak salbuespenik gabe,  
eskerrak eman nahi dizkizuet  
"xeremíes, tamborinos eta fobiols".

(Koroa)

"Mundua mundu den bitartean  
historiak zera esango du,  
Sollergo biztanleak egun hartan,  
aintza eta ohorea lortu zutela."

(Kantika)

Kapitain, Kapitain, Kapitain...

Salto, salto, salto Kapitain!